

III. ERANSKINA

BAREMOA. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Aurkeztutako eskaerak barematzeko ezarritako balorazio irizpideak, batetik, irabazi-asmorik gabeko kirol entitateek aurkeztutako programei (A taldea) aplikatuko zaizkie, eta, bestetik, kirol enpresek aurkeztutako programei (B taldea). Hauek dira irizpide horiek:

1. Antolaketa:

Monitoreen ratioa talde/jarduera bakoitzeko:

- Monitore 1/5 parte-hartzaile: 20 puntu.
- Monitore 1/7 parte-hartzaile: 15 puntu
- Monitore 1/9 parte-hartzaile: 10 puntu
- Monitore 1/10 parte-hartzaile baino gehiago: 5 puntu

2. Parte-hartzaileen kopurua guztira (ikasleak eta irakasleak):

- 200 parte-hartzaile bitarte: 12 puntu
- 201 eta 400 parte-hartzaile bitarte: 14 puntu.
- 401 eta 600 parte-hartzaile bitarte: 16 puntu.
- 601 eta 800 parte-hartzaile bitarte: 18 puntu.
- 801 parte-hartzaile edo gehiago: 20 puntu.

3. Giza baliabideak:

- Kirolean hasteko jardueretako monitore bakoitzaren lan esperientzia. 10 puntu gehienez monitore bakoitzeko. Puntu bat esperientzia urte bakoitzeko.
- Monitore bakoitzaren titulazio osagarria, irakasten duen jarduerarekin lotura izan behar duena: 10 puntu gehienez monitore bakoitzeko. 1 puntu/titulazio osagarri bakoitzeko.

4. Aukera berdintasuna: Genero ikuspegia:

- Emakumeen eta gizonen arteko ekitatea, proiektuko monitore kopuruari dagokionez. Ulertuko da presentzia orekatua dela baldin eta kasu batean edo bestean proportzioa ez bada % 60tik gorakoa eta % 40tik beherakoa. BAI: 5 puntu. Ez: 0 puntu.

5. Aukera berdintasuna: Irisgarritasuna.

- Desgaitasuna duten pertsonen egokitutako jardueren zerrenda: 5 puntu/desgaitasuna duten pertsonentzat eskuragarri dauden jarduerak.
- Desgaitasuna duten pertsonen egokitutako kirol instalazioen zerrenda: 5 puntu/instalazio.